BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 62

D MAILA



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1906

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena. Harlanduzko fatxada, atariaren pareko eskuinaldeko baoan aluminiozko begiratokia duena (jatorriz 3. oinera arte proiektatutako zurezkoa ordezkatzen du) laugarren oinera arte. Erlaitzeko erematea, atariaren ardatzean frontoi kurbatua duena. Konposizioari eta egiletzari dagokienez Urbieta 60ren berdina da, eta apaingarrietan diferentziak.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: begiratokia.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.